

## MUko kirol jertsearen 1.diseinu lehiaketa martxan

2012/11/06

MUko kirol zerbitzuak lehiaketara atera du 12/13 ikasturterako kirol jertsearen diseñua. Lehenengo aldia da horrelako lehiaketa bat antolatzen dela baina antzeko lehiaketetatik izandako esperientzia positiboak ikusirik, ziur da diseñu berritzaileak aurkeztuko direla.

Partaideek abenduaren 14a arte izango dute aukera beraien lanak aurkezteko eta irabazleak 150€ko saria irabazteaz aparte, jertsearen diseñua ikusi ahal izango du MUko ikasle zein langileen soinean.

Kirol zerbitzutik parte hartzera eta guztiok dugun artista sena ateratzera animatzen zaituztegu!

